



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako koadernoak

2
0
0
8
/
0
9

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

DBHko 2. maila

GAITASUN ZIENTIFIKOA

(Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna)

Zuzenketa eta erregistroa: jarraibideak

Liburuxka honetan ezarritako zuzenketa irizpideak 2008ko maiatzean eginiko proba pilotuaren arabera zehaztu dira, eta zehatzak eta argiak izan nahi dute, zuzentzaile guztiek puntuazio irizpide berberak erabil ditzaten; hau da, zuzentzailea normahi izanda ere, proba bati ematen zaion puntuazioak berbera izan beharko luke.

Ondoko urratsei jarraituko zaie:

1. Zuzenketa.

Alternatiba bat hautatzea eskatzen duten galderak (A, B, C edo D).



Zuzentzaileak ez du deus berezirik egin behar.

Gainontzeko galderak



Zuzentzaileak zuzenketa egingen du eta galdera bakoitzaren ondoan idatziko du dagokion kodea (0, 1, 2...).

2. Kodeak aplikazio informatikoan sartzea. Kodeak (A, B, C, D, 0, 1, 2...) aplikazio informatikoan sartuko dira.


Erantzunik gabeko galderetan ez da koderik sartu behar (utzi zuriz).

Alternatiba bat hautatzea eskatzen den galderetan, ikasleak aukera bat baino gehiago adierazi duenean (eta bat baino gehiago ezabatu gabe utzi duenean) ez da koderik sartu behar.

Ikasleek eginiko probak ikastetxean gordeko dira eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku egonen dira. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatze azterketak egin ahal izanen ditu, zuzenketa irizpideen baliotasuna egiaztatzeko eta irizpide horiei modu homogeneoan jarraitu zaien ikusteko.

Malaria: telebistaz emateko desegokia den gaixotasuna

Malaria bizkarroi (parasito) batek sorturiko gaixotasuna da, Plasmodium generoko Protozoo batek hain zuzen. Gaur egun, 100 herrialderi eragiten dio, baina giroaren tenperatura igotzeak eta biztanle mugimenduek dakartzaten klima aldaketek banaketa hau alda dezakete.



Munduko biztanleen erdia gaixotasun hau hartzeko arriskuan bizi da.

Urteko 300 eta 500 milioi pertsona artean gaixotzen da malariak jota eta urtero, gutxi gorabehera, 3 milioi hiltzen dira, orduro ehundaka batzuk, 30 segundoro neskato edo mutiko bat...

Malariak urtero ia HIESak azken 15 urtean bezainbeste heriotza eragin du. Baina ez du tsunamiak edo telebistaz emateko egokiagoak diren hondamendiek adinako publizitaterik lortzen.

Plasmodium izeneko protozoo batekin kutsaturiko *Anopheles* generoko eltxoen ziztadaz transmititzen da malaria.


Eltxo emeak soilik elikatzen dira odolez (odoljaleak edo hematofagoak dira), beraz, gaixotasuna transmititzearen erantzuleak dira. Egunaren zatirik handienean eltxoak geldialdian daude. Gaueko ohiturak dituzte eta arratsaldeko 6etatik aurrera erasotzen dute gehien.

Kutsatuta dagoen pertsona eltxoak ziztatzen duenean, parasitoak bere digestio-hodian biderkatzen dira.

Eltxo eramaileak beste pertsona bat ziztatzen duenean, bere txistuaren bidez parasitoak inokulatzen dizkio. Lehendabizi gibela bereganatzen dute, bertan ugalduz eta itxura aldatuz; ondoren, globulu gorriak hartzen dituzte eta suntsitzen dituzten bitartean berriro biderkatzen dira.

1. Hurrengo irudiak aurreko testuko azken paragrafoan dioena grafikoki adierazten du. Idatz itzazu ondorengo hitzak dagokien laukiaren barruan.

Anopheles - Gibekeko zelula - Globulu gorria - Gibela - Azala - Plasmodiuma



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	Termino guztiak zuzen idatzi dira laukietan.

2. Eltxoen emeak odoljaleak dira eta arrek, aldiz, landareen izerdia miazkatzen dute. Zergatik izan daiteke hori?
- A. Emeek oskol gorriko arrautzak jartzen dituzte eta arrek ez.
 - B. Emeek janaria kontzentratuagoa behar dute, arrautzak jartzeko.
 - C. Emeek pertsonak izorratu nahi dituzte eta arrek ez.
 - D. Beren arrautzak babesturik utzi ahal izateko, emeak zulo txiki asko dituzten herrietan bizi dira, eta arrak, berriz, basoan.

3. Beha ezazu malariaren banaketari buruzko mapa eta adierazi herrialde horiek malariaren arrisku guneetan dauden edo ez.

	MALARIA HARTZEKO ARRISKUA DAGOEN HERRIALDEAK	
	BAI	EZ
Brasil	X	
Kanada		X
Maroko		X
Errusia		X
Hegoafrika		X
India	X	
Etiopia	X	
Italia		X
Somalia	X	

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	2 akats edo gehiago.
1	1	Akats bakar bat.
2	2	Dena ongi adierazi da.

4. Zer aholku emanen zenieke malaria hartzeko arrisku handia dagoen herrialdeetan bizi direnei infekzio hori hartu nahi ez badute? Idatz ezazu prebentziorako aholkuren bat.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun zuzentzat ematen direnak ez diren erantzun bat edo logikoa ez den erantzun bat. Oharra: txertaketa ez da erantzun zuzena, egunero aplikatzeko kontseiluak eskatzen baitira.
1	1	Honako kontseilu hauen arteko edozein kontseilu logiko: - Eltxoak uxatzeko lozioa ematea. - Eltxoetatik babesten saiatzea (mahuka luzeak, galtza luzeak...). - Arratsaldeko 6etatik aurrera edo gauaz kalera ez ateratzen saiatzea. - Eltxo-sareak erabiltzea.

5. Zer gertatu beharko litzateke Iruñeko aireportutik atera gabe pertsona bat malariatz kutsatzeko?
- A. Kongotik hegazkinez hona sendatzera etorri den malariatz kutsatutako pertsona batek erabilitako edalontzi (baso) beretik edatea.
 - B. Gibela gaizki edukitzea.
 - C. Gaixoarekin batera Erriberara joatea, eltxo gutxiago dagoen toki batera.
 - D. Kongon, gaixoa hartu dutenean, hegazkinean sartu den eltxo batek hozka egitea.

Eskietan ere material berriak

Azken urte hauetan eskien mundua asko aldatzen ari da. Material berriekin batera, eskien pieza desberdinak lotzeko sistema bereziak agertu dira. Horrela, ongi irristatzen diren eskiak lortzeaz gainera, elur mota batean baino gehiagotan primerako emaitzak lortzen dituzte. Hasieran zurezkoak izan ziren, gero aluminiozkoak, eta gainera pieza ezberdinak sandwich eran itsatsiz.

1989ko abenduan *Salomon* frantziar enpresak eski-mota berri bat aurkeztu zuen, beira-zuntzekoa eta bloke bakarrekoa. Eski-mota honekin finkapen handiagoa lortzen zen elurrean.

Eski batek irristagarritasun ona eduki behar du. Ildo honetan, etengabeko ikerketak burutzen ari dira eta eskien zola tefloiairen antzeko polimero batekin eginez oso emaitza onak lortu dira.

6. Eskietan gertatu den bilakaera edo eboluzioa...

- A. txikia da, eskiak betidanik izan baitira berdintsuak.
- B. material berrien eta piezak lotzeko sistemen baitan dago.
- C. txikia da, ez baita ikerketarik egiten eskien ezaugarriak hobetzeko.
- D. diseinuan bakarrik nabari da, eskiak modaren arabera aldatzen baitira.

7. Material berriei buruz egindako ikerketek, zer ekarpen egin diote eskien fabrikazioari?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	Oinarrizko alderdi hauetako baten bat adierazi du: <ul style="list-style-type: none">- Irriaketa hobea (irriaketa hobea/handiagoa). Edo bestela, marruskadura txikiagoa.- Elurrari hobeki itsastea (finkapen hobea/handiagoa)
2	2	Oinarrizko bi alderdi hauek adierazi ditu: <ul style="list-style-type: none">- Irriaketa hobea/marruskadura txikiagoa.- Finkapen hobea.

8. Bi gainazalek elkar ukitzen dutenean, MARRUSKADURAK mugimenduari aurka egiten dio. Marruskadura sortzen da elkar ukitzen duten gainazalen zimurtasunagatik eta izaeragatik. Horren arabera, ondorengo baieztapen hauetatik zein da egokiena, zure ustez?

- A. Eski-zolaren eta elurraren arteko marruskadura zenbat eta txikiagoa izan, hainbat eta eskiaren irristagarritasuna hobea izanen da.
- B. Eski-zolaren eta elurraren arteko marruskadura zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta eskiaren irristagarritasuna hobea izanen da.
- C. Eski-zolaren eta elurraren arteko marruskadura handia nahiz txikia izan, eski-zola berdin-berdin irristatuko da elurraren gainean.
- D. Eski-zola zurezkoa bada marruskadurak ez du garrantzirik.

9. Tefloia material plastiko bat da, itsasgaitza, zartaginak egiteko erabiltzen dena eta baita eskiak egiteko ere. Eskiak egiterakoan, zer abantaila ditu material honek?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	Eskien irristaketa hobetzen du. Edo bestela, marruskadura murrizten du.

10. Beste material bat beira-zuntzen bidez indartutako plastikoa da. Beira hauskorra da eta plastikoaren polimeroak, berriz, malguak dira. Eskiak fabrikatzerakoan, zergatik konbinatzen dira guztiz ezaugarri desberdinak dituzten material hauek?

.....

.....

.....


Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	<ul style="list-style-type: none">• Erantzun orokorra, adieraziz materialak konbinatzen direla beste material batzuk lortzeko (osagai bakoitzaren abantailak ez dira galtzen), eta/edo haien desabantailak murrizteko.• Erantzun zehatzagoa, adieraziz materialak konbinatzen direla irristaketa eta eskiaren finkapena hobetzeko.

ESPERIMENTUAK ERREGAIEKIN

Ondoko irudian ura berotzeko bi sistema ikusten dira. Bi sistema horietan, hasieran ura temperatura berean dago eta berotu ondoren, amaierako temperatura bera lortzen da, hau da, 60 gradukoa.

Berotzeko, ezkerreko sisteman alkohol-erregailua erabiltzen da, eta eskuinekoan gasolinazkoa.

6 gramo alkohol eta 4 gramo gasolina erre dira.



11. Errepara iezazazu bi sistema horien arteko ezberdintasunei. Zure ustez, zein izanen da esperimentuaren emaitza?

- A. Bi kasuetan urak 60 graduko tenperatura lortzen duela.
- B. Ur kantitate bera berotzeko, alkohol gehiago erretzen dela gasolina baino.
- C. Alkohola eta gasolina erregai onak direla.
- D. Bi sistemetan oxigeno kantitate bera kontsumitzen dela.

12. Zein da esperimentu honen ondorioa?

- A. Gasolina gramo batek alkohol gramo batek baino bero handiagoa ematen du.
- B. Esperimentua egiten badugu termometroa eskuinean jarrita, erregai gutxiago kontsumituko da.
- C. Merkeagoa da gasolinarekin berotzea alkoholarekin berotzea baino.
- D. Kontuz ibili behar da erregai bat sugarraz berotzean.

13. Ondoko baieztapen hauetatik, zein dira egiazkoak eta zein okerrak?

	Egia	Okerra
Alkohola eta gasolina bioerregaiak dira.....		X
Gasolinak alkoholak baino berotzeko ahalmen handiagoa du.....	X	
Alkohola edo gasolina erretzean CO ₂ eta ura ateratzen dira.....	X	
Bioerregaiak giza elikagaiak dira.....		X

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	Dena zuzen.

14. Erregai fosilak erabili beharrean bioerregaiak erabiltzea ez da ingurumenarentzat hain kaltegarritzat jotzen. Zergatik izanen da?

- A. Bioerregaiak ez dutelako CO₂ ateratzen.
- B. Bioerregaiak erretzea erregai fosilak erretzea baino errazagoa delako.
- C. Bioerregaiak egiteko erabiltzen diren landareek CO₂ xurgatzen dutelako.
- D. Herrialde guztiek bioerregaiak egin ditzaketelako.

15. Betidanik landareak elikagai gisa erabili izan dira. Gaur egun, gainera, landareak bioerregaiak egiteko erabiltzen dira. Adieraz itzazu erabilera horren abantailak eta desabantailak, argudioak emanaz.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Kodea	Kodea
0	0	Erantzun osatugabea da. Ez du abantailarik eta/edo desabantailarik adierazi.
1	1	Erantzunaren zati bat zuzena da. - Abantaila bat eta desabantaila bat adierazi ditu. - Era berean, puntu 1 emanen zaio, modu hausnartuan edo argudioekin, abantaila edo desabantaila bakar bat garatzen dituenean.
2	2	Erantzun on bat. - 2 abantaila eta 2 desabantaila aipatu ditu, gutxienez: Abantailak: <ul style="list-style-type: none"> • Petrolioaren mendekotasuna murrizten du. • Herrialde guztiek bioerregaiak sor ditzakete. • Landareek CO₂-ren emisioak xurgatzen dituzte. • Erregaien salneurria murriz dezake. Desabantailak: <ul style="list-style-type: none"> • Gosea. Elikagaiak landatzeko toki gutxiago dago. Landare-elikagaien salneurria garestitzen da. Elikagaiak sortzeko landareak landatzearen ordezkariak egiteko landareak landatzen dira. Horren ondorioz, barazkiak garestitzen dira eta herrialde txiroetan gosea eragiten da. • Deforestazioa (landa-lurrak sortzeko). • Ureztaketetarako ur asko erabiltzea. • Landaketa estentsiboarekin eta intentsiboarekin lotutako desabantailak. - Era berean, 2 puntu emanen dira ikasleak modu hausnartuan eta argudioekin abantaila bat eta desabantaila bat garatu baditu.

16. Ordena itzazu 1etik 4ra zenbatuz, metodo zientifikoaren ondorengo urratsak:

	Zenbatgarren urratsa
Hipotesien adierazpena	1
Ondorioak	4
Esperimentazioa	2
Esperimentazioko datuen bilketa eta antolaketa	3

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Akats bat edo gehiago.
1	1	Dena zuzen.

Ehiztarien aroa ez da amaitu

Zuraren ustiapena da baso-ekoizpenik garrantzitsuena, horrek baitu pisu gehien ekonomikoki. Baina, gizartean duen oihartzunari erreparatuz gero, ehiza basoan egiten den jarduera nabarmenetako bat da eta ongi sendotua dago gure lurraldean. Nafarroan, adibidez, 32.000 ehiztari daude. Horrek esan nahi du 18 eta 65 urte bitarteko populazioaren ia %10ak duela ehiza baimena.



EHIZA LARRIA ETA XEHEA

Basoan ehizatzen diren animalia gehienak handiak dira. Baso itxietan basurdea da jaun eta jabe, eta, gainera, bere nagusitasuna sendotzen ari da azkenaldian. Nekazari asko kexu dira kalteak eragiten dituelako, eta gero eta basurde gehiago ehizatzen dira, populazioa kontrolatzeko asmoarekin. Oreinen eta orkatzen populazioak ere handitzen ari dira, nahiz eta urtetik urtera gero eta gehiago ehizatu. Ondorioz, orain lehen baino ehiza baimen gehiago ematen dira.

Azeria, erbia, untxia, eperra eta galeperra ehizatzen diren beste animalia batzuk dira, baina hauek ez dira sartzen ehiza larrian, ehiza xehean baizik. Oro har, ehiza xehea ez da basoan ehizatzen, zuhaitzik gabeko eremu irekietan eta laborantza-lurretan baizik.

Ehiza jarduera interesgarria izan daiteke landa-eremuetan diru-sarrerak osatzeko. Nafarroako iparraldean ehiza-esparrua, adibidez, nekazaritzaren osagarri garrantzitsua bihurtu da, eta beste hainbat tokitan ere ehizatik etekin ekonomiko handiagoa nola lortu aztertzen ari dira.

Galarraga Aiestaran, Ana
Elhuyar: Zientzia eta teknika, 204, 1016.-1023. or. Egokitua.

17. Testuan ehiza larria eta xehea bereizten dira. Zein da bien arteko alderik nagusiena?

- A. Ehiza larrian basurdeak soilik ehizatzen dira.
- B. Ehiza larria eta xehea arriskuaren arabera bereizten dira.
- C. Ehiza daitezkeen animalien tamaina eta pisua.
- D. Ehiza larria ez da basoetan egiten, laborantza-eremuetan baizik.

18. Basurdeen, oreinen eta orkatzen populazioak gora egin du azken urteotan. Zein ote da igoera horren arrazoi nagusia?

- A. Babesturiko parkeak ugaritu direla eta jendeak basoa errespetatzen duela.
- B. Animaliei janaria ematen zaiela.
- C. Elikagaiak lortzeko erraztasuna izatea eta harraparirik ez izatea.
- D. Klimaren aldaketa eta eguraldi ona.

19. Basurdeen, oreinen eta orkatzen populazioak gora egin du, eta hartu den neurri bat zera da: ehiza egiteko baimen kopuruak handitzea. Neurri hori hartzeko, onargarriak al dira ondorengo arrazoiak?

	Bai	Ez
Basurdeek nekazaritza-eremuetan kalteak eragiten dituzte, eta oreinen eta orkatzen populazioak ere kontrolatu behar dira, gehiegi ez izateko.	X	
Ehiztariak ere badute ehizatzeako eskubidea eta behar hainbeste baimen eskaini behar zaizkie.		X
Orein gehiegi daudenean gosez hiltzen dira eta halakoetan ehizak populazioa kontrolatzen laguntzen du.	X	
Ehiza osasungarria da pertsona helduentzat, mendian ibiltzea ona delako, eta ehiza baimen gehiago eman behar dira.		X

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	Dena zuzen.

20. Jarraian duzu Nafarroan azken urte hauetan animalia basatiek eragin dituzten auto istripuen kopuruak. Atera itzazu 2 ondorio.

Istripu kopurua			
Urtea	Fauna zinegetikoa	Fauna ez zinegetikoa	Osotara
2000	51	3	54
2001	69	5	74
2002	90	12	102
2003	99	8	107
OSOTARA	309	28	337

Fauna zinegetikoa: ehizatzen diren espezieak.

Fauna ez zinegetikoa: ehizatzen ez diren espezieak.

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	Ondorioetako bat aipatu da.
2	2	2 ondorio nagusiak aipatu dira: <ul style="list-style-type: none"> Istripuen kopuruak urtero gora egiten du. Fauna dela-eta, urtero istripu gehiago gertatzen da. Urtetik urtera, gero eta istripu gehiago gertatzen da (gehikuntza etengabea eta erregularra da). Fauna zinegetikoak fauna ez zinegetikoak baino istripu gehiago sortzen du.

21. Testuan esaten da Nafarroako 18 eta 65 urte bitartekoen %10ak ehizatze baimena duela. Zure ustez, baimen horiek, proportzio berean banatzen dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean? Zergatik?

.....

.....

.....

.....


Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Emakumearentzako oso erantzun diskriminatzailea. ▪ Proportzioa desberdina dela esaten ez duen erantzuna eta/do argudiorik gabeko erantzuna.
1	1	Erantzunean proportzioa eta zergati bat ageri dira: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Proportzian gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira. ▪ Zergatiak hauek izan daitezke: tradizioa eta ohiturak, kultura, gizonezkoek ehizarako zaletasun handiagoa izatea, etab.

22. Ehiza kaltegarria izan daiteke ingurumenarentzat. Ondorengo jardueretatik, zein da ingurumenarentzat kaltegarriena?

- A. Hamaiketako egin ondoren uzten diren hondakin organikoak.
- B. Tiro egiteko erabiltzen diren kartutxoek duten beruna.
- C. Basoan lagun asko bildu eta hizketan eta oihuka aritzea.
- D. Ehizan zakur asko erabiltzen da eta zakurrek basoko animaliak uxatzen dituzte.

Óscar Freire

Behean dago eskematikoki irudikatua Óscar Freire txirrindulari ezagunak *Espainiako Vuelta-2007* probako etapa batean jokatu zuen erlojuaren kontrako saio bat. Begira itzazu (a) eta (b) marrazkiak. Haietan ikus ditzakezu txirrindulariak karreran izan zituen posizioak eta denborak. Datu horiekin, erantzun ondoko galderari:



23. Kalkula ezazu zer distantzia egin duen Óscar Freirek karrerako azken hamar minutuetan.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	10 km

24. Kalkula ezazu zer distantzia egin duen hamalagarren minututik hogeita bosgarrena bitartean.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	10 km

25. Konpara ezazu zenbat denbora behar duen etaparen lehen erdia eta bigarrena egiteko. Zer ondorio ateratzen duzu abiadurari buruz?

.....

.....


.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Erantzun zuzena, baina ez oso zehatza. Nolanahi ere, honako hau gutxienez adieraziko da: etaparen lehen zatia egiteko abiadura 2. zatia egitekoa baino txikiagoa da.
2	2	Erantzun zuzen eta zehatza, argi eta garbi adieraziz etaparen lehen zatia egiteko abiadura etaparen bigarren zatia egiteko erabilitakoaren erdia dela. Halaber, ontzat emanen da ikasleak kalkuluak zuzen egin baditu: <ul style="list-style-type: none"> • 1. zatiko abiadura = 0,5 km/minutuko (edo 30 Km/h) • 2. zatiko abiadura = 1 km/minutuko (edo 60 Km/h)

26. Irudika ezazu grafiko honetan txirrindulariaren mugimendua:



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Irudikapen okerra. Oharra: betebehar modura, puntuak segmentuen bidez loturik egonen dira, (0,0)-tik abiatuz. Ez da beharrezkoa (0,0) puntua markatzea, baina lehen segmentuak puntu hau hurrengoarekin lotu beharko du.
1	1	Irudikapenak badu akats (edo omisio) bat puntuetako batean. Akatsa (edo omisioa) (14,5) puntuan edo beste puntu batean egon daiteke.
2	2	Irudikapenean lau puntuak [(14, 5), (20, 10), (25, 15) eta (30, 20)] eta lotura-segmentuak islatzen dira. 2 puntu eman ahal izateko, ikasleak argi eta zehatz irudikatu beharko ditu 4 puntuak. Zehazki, (14, 5) puntuari dagokionez, argi eta garbi azaldu behar da abzisa 14 dela (ez nahasteko moduan), grafikoan argi adieraziz edo zenbaki bidez adieraziz.

27. Esan ezazu karrerari buruzko baieztapen hauek egia edo gezurra diren.

	Egia	Gezurra
Txirrindularia ibilbide osoan abiadura berean doa.....		X
Hasieran, txirrindularia oso azkar doa, baina bukaeran motel iritsi da		X
Txirrindulariak ordubete behar izan du ibilbide osoa egiteko.....		X
Txirrindulariaren batez besteko abiadura 40 km/h-koa izan da ...	X	
Txirrindulariaren batez besteko abiadura 6,6 km/minutukoa da....		X

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	
1	1	Akats bat.
2	2	Dena zuzen.